



2024KO MAIATZAREN 14KO
EZOHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko maiatzaren hamalauan, arratsaldeko seiak eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ezohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Eneritz Miranda Muxika, Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Josetxo Sese Eztala, Unbe Echaniz Perez, Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Egoitz Bergara Azpirotz, Maialen Amundarain Irizar, Maria Carolina Aguirre Mastrangelo eta Haritz Antoñanzas Urdangarin.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN FUNTSAK KUDEATZEKO IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANAREN ETA HORREN INGURUKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN ONARPENA.-

Ikusi da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduak, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duenak, 22. artikuluan ezarritakoaren arabera, estatu kideek funtsen barne-kontrolerako sistema eraginkor eta efizientea ezarri behar dutela.

Ikusi da, STEParen kudeaketa-sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 6. artikuluen arabera, STEParen neurrien betearazpenean parte hartzen duen erakunde erabakitzaile edo betearazle orok «Iruzurraren aurkako neurrien plan» bat izan beharko duela, zeinak ahalbidetuko baitio bermatzea eta deklaratzeko dagozkion funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeari, hautemateari eta zuzentzeari dagokienez.

Lazkaoko Udaleko zerbitzu teknikoek egindako iruzurraren aurkako neurrien planaren dokumentua aztertu da.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio hizkuntzari dagokionez badaudela zuzentzeko zenbait puntu. Edukiari dagokionez, galdetu du ea esaten diren zenbait gauza benetan sinisten al dituzten edota izapide hutsa bezela hartu al den dokumentu hau.

Alkateak dio baietz, sinisten duela dokumentu honek dioena. Adierazpen instituzionala dela eta bere ustetan ondo dagoela.

Ormazabalek dio harridura sortu diela oso esplizitatua dagoela teknikarien jarraipenera, organoak ere beraiek kudeatzen dituztela, ardura politikorik ez dagoela kontrol organoetan. Dokumentu honek bereziki teknikariak zaintzen dituela, eta inork



eskuak garbi eduki behar baditu politikariak direla. Politikariak inplizituki barne hartzen dituela, Udal osoa hartzen duelako baina aipatu, teknikariak bakarrik aipatzen dituela.

Alkateak dio noski politikariak ere barne hartzen dituela honek, bete-betean. Baina kontrol hori ez da utzi nahi politikarien esku. Hain zuzen ere, teknikariak eskuak libre izan ditzaten edozein kexa edota gertaeraren aurrean, politikariek esku-hartzerik izan ez dezaten.

Ormazabalek dio bat datozela kontrola teknikariak egitearekin, baina iruditu zaiela dokumentuan, kontrolatuak ere teknikariak direla bereziki edo esplizituki aipatuta. Alkateak erantzun dio dokumentu honek guztiak hartzen diituela, bai politikariak, bai teknikariak.

Hau guztia honela, eta gaia Ogasun batzorde informatzailean informatua izan ondoren, Osoko Bilkura honek, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

LEHENENGOA.- Erabaki honen eranskinetan jasota dauden Lazkaoko Udalaren iruzurraren aurkako neurrien plana eta adierazpen instituzionala onartzea.

BIGARRENA.- Iruzzurraren aurkako neurrien Planaren Jarraipen eta Ebaluazio Batzordearen sorrera onartzea, planaren helburuen betetze-maila ebaluatzeko, 7. atalean aurreikusten den bezala.

HIRUGARRENA.- Planaren neurriak zuzenean aplikatuko dira Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren funtsak kudeatzeko, eta Iruzzurraren aurkako Neurrien Planaren Jarraipen Batzordeak kudeatuko ditu, plan hau aplikatzen eta betetzen dela zaintzeko.

LAUGARRENA.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 50.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, udal honen eta bere erakunde autonomoen Iruzzurraren aurkako Neurrien Planari buruzko informazio interesgarri guztia udaletxeko webgunean eta bertako iragarki-taulan argitaratzea, aldizka eta etengabe. Hori guztia egiteko, datu pertsonalen babesaren arloko legeriak ezartzen dituen mugak aplikatuko dira.

BOSGARRENA.- Plan honek iraupen mugagabea izango du, baina arau- eta erregulazio-esparruarekin bat etorritik, edozein unetan eguneratu ahal izango da, edo Europako Batzordeak edo Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak kontrol-mekanismo edo -arau berriak txertatu ahala, edo Iruzzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalak Estatuko Administrazioako Kontu-hartzailetza Nagusiak zehaztutako gidalerro eta protokoloak gehitu ahala, STEPea aurreikusitakoaren arabera.

II.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du arratsaldeko seiak eta berrogeita bost direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.

